

Tescreal



DIANA FRANCO EGUREN

Radical futures diseinu espekulativa bora zuzentzen den estudioak aurkezpen interesgarri bat partekatu du: *A quick guide to the mythologies driving tech power* (gida azkarra teknologien boterean daudenak gidatzen dituzten mitologienguruan). Bertan diote Silicom Valleyko eliteak ez direla ari soilik produktuak sortzen, errealitateak baizik. Errealitate okertuak, modu sutsuan babestuak, diru kopuru basatiekin bultzatuak.

Tescreal hitza Timni Gebru konputazio zientzialariak eta Émilie P. Torres filosofoak asmatu zuten; esanahia honakoa da: "Isilean teknologiaren erabakirik garrantzitsuenak gidatzen dituen ideologia multzoa". Euren hitzetan, gaur egun erabaki teknologiko garrantzitsuak hartzeko boterea dutenak dira munduaren salbatzaile direnaren fantasian bizi den tekno-elitea. Fantasia horren baitan, mitologia oso bat sortu dute, honako elementuekin: transhumanismoa (giza gorputzaren gaitasunak ez dira nahikoak, teknologiak hobetu behar gaitu), extropianismoa (teknologiak entropia gaintutuko du), singularitatea (Adimen Artifizial super argi batek laster gaintutuko du gizakia, berarekin lerrotu behar gara), kosmikoa (lurra jaurtiketa plataforma da soilik, gizadiaren etorkizuna izarretan dago), arrazionalismoa (logika eta arrazoiak egiaren bide bakarrak dira, emozioa oztopo bat da), altruismo eraginkorra (onik handiena lortzeko, ebidentzia eta logikaren bitartez maximizatu behar da inpaktua), eta epe luzerako begirada (lehetasuna etorkizun urrea babestea da, egungo bizitzaren kontura bada ere).

Bitartean, egunerokoan, nonahi ikusten dugu izaki bizidunak zeinen hauskorak eta akastunak garen, maitasun beharrean. Zenbat behar dugun zaintza eta babesa, zaintza eta babesa bideratzeko zeinen beharrezkoa den konfiantzazko harremanak baliatzen dituen ehundura, eta ehundura hori zaindu eta indartzea. Bizitzaren ongizatea bultzatuko duen mitologia berrasmatu beharko dugu, garai hauetara egokitua. ●

Israeli boikota

✚ GORKA PEÑAGARIKANO / MARIA ORTEGA



Saioa Alkaizak uko egin dio Igartza literatur bekari, CAF diru-emaile delako. "Israelen kontrako boikot kanpainak martxan dauden honetan, kulturegileoi lerratzea dagokigu", adierazi du Saioa Alkaizak komunikabideetara igorritako oharrean.

"Euskal kultura kritiko eta lerratua behar dugu" esan du, "hitzez harago, ekintzez erantzuteko". "Genozidioaren konplize den enpresak kulturaren bidez zurituz nahi izan du bere burua, eta fokua behar den lekuan kokatu beharra dago, Palestinaren kontrako genozidioan", adierazi du Alkaizak. Era berean, Alkaizak oroitarazi du Nazio Batuen Erakundeak, txosten baten bidez, CAFen jardura jo puntuan ipini duela, gerra krimenetatik etekina ateratzen duen enpresetako bat delako, eta lurralde okupatuetan eraikitzen ari den trenak palestinaren burujabetza-rena kontra egiten duelako.

Israelen Boikoterako, Desinbertsiorako eta Zigorretarako mugimenduak Alkaizaren erabakia txalotu egin du, keinu etikoa eta ausarta dela adierazita. Era berean, Elkar argitaletxeari gonbita luzatu dio, "hausnartzera eta erabaki ausartak" hartzera, "genozidioekin kolaboraziorik onartuko ez duen kultur mundu baterantz pausoak ematera".

Beasaingo Udalak antolatzen du literatur beka, CAF enpresaren eta Elkar argitaletxearen laguntzarekin, idazle

gazteei aukera zabaltzeko helburuz. 10.000 euroko laguntza da.

SESTAOKO XAKE TXAPELKETA

Israeli Boikot ekimenaren beste garaipen bat: Sestaoko Open Basque Country xake lehiaketan parte hartzeak ziren zazpi israeldarrek uko egin diote txapelketari. Aurrez, protesta sendoak izan dira beren parte-hartzearen aurka, Sestao Palestinarekin elkartekaitz. Sestaoko Xake Klubak, txapelketaren antolatzaileak, hasieratik eskatu zien ez parte hartzeiko Israelgo jokalariei, edo, behintzat, banderarik ez erabiltzeko; eskaera horri muzin egin zioten jokalariek. Baina orain parte ez hartzea erabaki dute, gizarte presioaren ondorioz.

EUROVISIONEN ERE, BOIKOTA

Irlanda, Eslovenia eta Herbehereek jakinarazi dute (astekari hau ixteko unean hiru direla herrialdeak) ez direla 2026ko Eurovision jaialdira aurkeztuko Israelek parte hartzen jarraitzen badu. Espainiako Gobernuak ere antzerako adierazpenak egin ditu: Pedro Sánchez presidenteak eskatua du Israelen deskalkifikazioa, eta Ernest Urtsun Kultura ministroak adierazi du "neurriak hartu" beharko dituztela Israelek parte hartzeari uko egiten ez badio. "Ezin dugu normalizatu Israelen parte-hartzea nazioarteko foroetan, ezer gertatuko ez balitz bezala". ●